

PADARRAK

Alonso jaunaren baratz-zokoan, arresi edo orma nagusitik urre, ikusi Rodrigo ta Teresa neba-arreben eremu ixilla. Zoko orretan areitz maitekor bat dago, ta areitz onen enbor zedenduak, be-bean, ao aundia erakusten dau, antxiñako leza antzera. Teresa ta Rodrigo padar dira, ta auxe da padar bien aitz-zulo ixilla.

Beñola nai izan eben mairu artera joan, Jainko-alde euren zandola emoteko; baiña au lortu eziñik, padar edo bakarti izatea erabagi dabe, areitzaren zuloan ermitaxo bat jasorik. Edo, obeto, oraintxe diardue jasoten.

Rodrigo'k, bata bestean gaiñean jarten ditu baratz-zaiñak, atxurtezan, baturiko arri-kozkorrak; eta Teresa'k, baratz-lauki ureztu-barrietatik dakazan lur busti eskukadaz zapaltzen ditu, polito-polito.

Orain goi-alde ta sabaia, Rodrigo'k Donibane-sesak ebagi ta zotz bardiñetan austen ditu. Teresa'k, oster, orma gaiñez gurutzatu.

Teillaturako, osin ondoan jaio ta azten dan bedar jagia.

Ta or amaiturik bas-eliza edo armitatxoa.

Ondoren padarren arpea. Gotarrendura'ko artzaiñen txabola antzera. Enbor eskumara, Rodrigo'rena; ezkerrera, Gizakunde deritxon lekaimetxera begira, Teresa'rena.

Teresa'k bizkor ebagi dau atzeneko bedar-eskukada, bordari gaiña emotekoa noski, eguzkia itxasora noiz jausiko dago-ta.

—Amaitu bizkor, Rodrigo, irakurteko garaia eldua dogu-ta.

Rodrigo, lekaide on ta esaneko zurrian, bere bordan jartera joian bedar-azao eskuan dauala, tinko geratu da.

Teresa belauniko jarri da ermita aurrean, ta FLOS SANCTORUM irakurten asi.

Rodrigo padarrak, zugatz-enborrari dautsala jarrita, lilluratua entzueten dau...

Irakurtaldia «oiñaze ta zoriona *betiko* izango dira» diñon tokian da.

Teresa'k, biotz ikara bereziz irakurri dau *betiko* itz au. Neskatoaren abots eztiak basamortuko bakar-zale batena baizen astun ta zoli dardar egin dau.

—Betiko. Rodrigo, betiko, beti, beti!...

Rodrigo'k, zorabio gozoan, bere arrebaren begi argituxetara so dagi, ta lillura utsez berresaten dau:

—Betiko, beti, beti!...

Eguzkia gorde da, odei gorri artean murgil. Aize ozkirria, baratzeko zugatz-ostoetan jostari; areitz arronduaren zuloan, sorgin-aize bali litzan, txaramelo biurria, dana eroan ta irauli bearrez.

Rodrigo'k, lurrera datozen arri txoen otsera, burua itzaltzen dau, ikusmin bizian. Teresa, barriz, ezta oartzen ermitatxoa zarbaildu ta lurrera eratsiz aizeak egin dautson kalte ta triskantzaz: borda gaiñeko lastoak be eroan ditu.

Betiraun biak, oiñaze-betirauna ta sari-betirauna, zabal-zabal egin jakoz begi aurrean. Eta arri ta zur egiñik dago, sorgor ta zentzun-galdu...

—*Betiko, beti, betiko!*

S. O.